

## Hazi tratuan

FRUITUETAN haziak hedatzeari utzi dio pikondoak (*Ficus carica*). Haginari (*Taxus baccata*), lizarrari (*Fraxinus excelsior*), arteari (*Quercus ilex*), intsusari (*Sambucus nigra*) eta zeregin espirituala izan duten zuhaitzei gure etxearen aldamean toki esanguratsuena kendu zienetik, antzutu egin du bere burua. Irratian dudan aholku programan, behin batean, etxe ondolan pikondoak dituzten etxeetan zoritxarra jabetzen dela iruditzen zitzaiola esan zuen entzule batek. Ez zait berehalakoan ahaztuko.

Itsu-itsuan, zuri eta niri utzi digu pikondoak bere espeziea ugaltzeko lana. Hazia baino klonazioa gustukoagoa du; erabaki horrek prezioa berarekin du. Urtea joan eta urtea etorri haziak ontzea baino askoz merkeagoa da; adarrak lurreraino makurtu, itsatsi, eta beste arbola bat balitz bezala hazi. Horrek ere adarrak kakotu eta lurreraino okertu... Bukaerarik ez duen izaki kloniko izugarria sortzeko gai da. Horrela hazi da munduko bizidun handienetako bat, Indiako Kadiri hirian bizi den *Ficus benghalensis* bat; 21.000 metro koadro harrapatzeraino hazi da 550 urtean, eta Thimmamma

Marrimano izena du. Ez naiz harekin endredatuko, lehengo mendean berari buruz hitz egin nuen txoko honetan Zubaitz *asesinoak* izeneko artikuluan.

Pikondoak adarra kakotuz eta makurtuz, ugaritu behar dugunean geuk zer egin behar dugun erakusten du. Neguaren amaian, izerdi berria mugitu aurretik, adar kakoa moztu, aitzurrarekin zanga bat ireki eta ia adar osoa lurpean sartu kakoaren punta, bi edo hiru begiekin kanpoan utzita. Lurpean geratzen diren begiek zainak emango dituzte, itsatsi egingo da, eta bistakoek, hostoak. Horra pikondo berria.

Hazian sinesten duenik ere bada, halere. Bitxi eta diamante saltzaileek. Tratulari fariseu horiek etekina emango dieten gaia neurtzeko kilatea erabiltzen dute. Kilatea *Ceratonía siliqua* algarrobondoaren hazitik dator. Algarroboak lekan ematen dituen haziak oso berdina dira, nonbait. Hazi batek besterako aldea oso tikiak iza-



CHIXOY-CC BY SA

**Algarrobondoaren (*Ceratonía siliqua*) leka. Barruko haziak elkarren ia berdina dira, horregatik erabiltzen ziren neurri modura.**

nik, neurri bezala hartua izan zen. Hebreeraz *kharow*, arabieraz *kharoub*, grezieraz adartxo esan nahi duen *κέρσιον*... Zikulu saltsa horretatik abiatuta, azkenean arabiarren *qirat* hitza barreiatu da "pisu txiki" esanahiarekin. Algarrobondoaren adar itxurako leka, lekaren barruko alearen pisua... Azkenean, diamanteen eta bitxiaren kilateak...

Oso berdina izango dira, baina, saltzeko hazi batzuk eta erosteko beste batzuk jarriko zituzten bitxi-tratanteek balantzan. ■



## Ahuakatea

Kantabria aldean izan naiz aspaldiko lagun batzuei bisita egiten. Gipuzkoako ekialdetik hara kliman dagoen aldeak, eta horrek landaredian duen eraginak, beti arreta pizten dit. Gipuzkoatik Bizkaira eta Kantabriara klima berotuz doa. Palmerak, garrazkiak... beste poz bat nabaritzen zaie han. Eta lagunaren etxean ahukateoia (*Persea americana*) fruituz gainezka. Arbolan heldutako ahukateak jan ditugu... Imajina ezazu gure poza. Inoiz baten batek esan izan dit: garai batean, gure herrian, jauregi batean ba omen zen ahukateoia handi bat, eta haren fruituak sonatuak omen ziren eskualdean. Bizitzen ari garen klima aldaketa dela eta, ale batzuk aldatu beharko ditut. ■